



# Olabetxebarría (-a) etxebizitza

Aldakerak:  
Ahozkoa: Olabetxebárrí

“... la casa titulada Olabe-echevarría accesoria de la anterior [Olabe-larrinaga], la principal... en dicha cofradía de Ocango que es de dos viviendas, ocupa con inclusión del horno, zaguan, un pequeño campo y un retazo de huerta contiguos, doscientos treinta y siete estados o nueve áreas y dos centiáreas...”  
DJE 3/134 or. (1876)



43° 10' 30"

2° 33' 59"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Garai batean Olabe auzoan egindako etxe berria izango zen honako hau. Dokumentazioan, XVIII. mende hasieran izaten dugu honen berri: *Olabe Echevarría* (1708, BAHF, A2160/32. or.). Hortik aurrera, aldaketa gutxiko izena du, eta beti izen bera aurkitzen dugu, forma desberdinak erabili arren: *Olabe Echebaria* (1796) mende amaierako su-errolan, *Olabe-echevarría* (1876, DJE, 3/ 134. or.) jabego-eskiriturretan eta *Olavechevarri* 1967ko Udal-errolan. Olabetarren artean, *Etxebárrí* deitzen dute, eta berriztarraren artean, *Olabetxebárrí* da gehien erabilitako forma.

Zaharragoaren lekuan eraikitako baserri berria da, lehengoaren tankera nagusia gordetzen saiatu badira ere. Isuri biko teilatuaren azpian erdiko ardatzaren arabera antolaturiko fatxada aurkezten du. Beheko solairuan alboetako leiho banak atarteak indartzen dute. Eta lehenengo solairuan, ostera, balkoi zabala da arreta erakartzen duena, egurrezko karelduna. Ganbaran ere balkoia dauka, baina txikiagoa. Alboetan, txori-tokiak. Etxearen barrenean, zokalo gisa, harria erabili dute, baita kantaletan eta atartearen janbetan ere edo alboetako fatxadetako leihoen ertzetan. Gainerakoa luzitu eta margetuta du.

## toponimia

Sarritan esan dugun legez Bizkaian oso arrunta da etxe izenetan lehenengo osagaia auzoaren izena izatea, hemen bezala, eta bigarrena etxearena berarena, Etxebarria kasu honetan. Etxebarria, erdi-ekialdeko Etxeberria aldaerarekin batera Euskal Herriko deiturarik hedatuena da.